



Brusela, 2015.07.15
C(2015) 5032 azkenekoa

BERTSIO PUBLIKOA

Dokumentu hau Batzordearen barneko dokumentua da eta eskusiboki informazio-helburuekin dago eskura.

Gaia: SA.40885 (2015/N) - Espainia Estatuko laguntza Bizkaiko probintzian zinema eta ikus-entzunezkoen ekoizpenetarako zerga-kenkaria

Jaun txit prestu hori:

1. PROZEDURA

- (1) 2015eko otsailaren 10ean Espainiako agintariek Bizkaiko Foru Aldundiko laguntzen araubidean zenbait aldaketa jakinarazi zituzten eta zinema nahiz ikus-entzunezkoen ekoizpenetarako zerga-kenkariak dira. Espainiako agintariek 2015eko martxoaren 10ean, apirilaren 17an, maiatzaren 6an, maiatzaren 7an, ekainaren 12an, ekainaren 25ean, ekainaren 26an, ekainaren 29an, uztailaren 1ean eta uztailaren 9an informazio osagarria aurkeztu zuten.

2. NEURRIAREN DESKRIBAPEN ZEHATZA

2.1. Xedapen orokorrak

- (2) Aldaketek hasieran Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 27ko 11/1984 Foru Dekretuaren bidez Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araubidean agertzen diren laguntzen erregimena (aurrerantzean, «hasierako erregimena») aipatzen dute
- (3) Aldatutako erregimenaren oinarri juridikoak ondorengoak dira:
 - a) Sozietatearen Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren hamabosgarren xedapen gehigarria (238. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2013ko abenduaren 13koa).

José Manuel García-Margallo y Marfil jaun txit
prestua Kanpo Arazoetako eta Kooperazioko
Ministerioa Plaza de la Provincia 1
E- 28012 MADRIL

- b) 3/2015 Foru Araua, martxoaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren zerga-arloan hainbat foru arau aldatzen dituen (46. Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2015eko martxoaren 9koa).
 - c) Abenduaren 23ko Bizkaiko Foru Aldundiaren 203/2013 Foru Dekretuz onetsitako Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudia aldatzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren Foru Dekretuari dagokion bederatzigarren xedapen gehigarria (zirriborroa).
- (4) Laguntza ematen duen agintaritza Bizkaiko Foru Aldundia da.
 - (5) Neurriak kultur helburua du: kultur obra europarrak babesten eta hedatzen laguntzea.
 - (6) Onuradunak sozietateen gaineko zergapeko ekoizleak dira.
 - (7) Hasierako erregimenaren arabera, neurriak ordaindu beharreko sozietateen gaineko zerga garbia murriztea aurrez ikusten zuen. Zinema eta ikus-entzunezkoen ekoizpenean egindako inbertsioaren % 20 zen. Kenkariaren oinarriak ekoizpen-kostuei erreparatzen zien, finantza-ekoizleek egindako ekarpenak kenduta (hala baleude). Finantza-ekoizleek zerga-kenkari berezia izan zezaketen, hau da, inbertsioen % 5.
 - (8) Laguntza eskuratzeko, ikus-entzunezkoen ekoizpenek nazionalitatearen ziurtagiria eta kultur ziurtagiria lortu behar dute Espainiako Zinema eta Ikus Entzunezkoen Arteetarako Erakundearen (ZIEAE) eskutik.
 - (9) Kultur ziurtagiria lortzeko, ekoizpenak hamarretik gutxienez bi irizpide bete behar ditu. Irizpideak honakoei buruzkoak dira: ekoizpenaren hizkuntza (jatorrizko bertsioa Espainiako hizkuntza ofizial batean), istorioaren kokapena (Espainia), istorioaren gaia (sormen artistikoaren azalpenei, gertaera historikoei, mitologiari, europar aniztasunari, Espainiako errealitateari buruzkoa), filmaren pertsonaiak (Espainiako errealitate sozial, kulturak edo politikoari lotutakoak) eta jende hartzailea (haurrak edo gazteak). Kultur ziurtagiria xehetasun osoz deskribatzen da zinema eta ikus-entzunezkoen ekoizpenetarako zerga-kenkariaren Espainiako araubideari dagokion Batzordearen Erabakian (2014. urtean onartutakoa¹).
 - (10) Nazionalitatearen ziurtagiria Espainiako ekoizpen enpresek edo EBko bestelako enpresek lor dezakete, laguntza ordaintzean establezimendu bat (hau da, sukurtsal edo bulego iraunkorra) Espainian finkatzen badute. Ziurtagiria jasotzeko, ikus-entzunezkoen ekoizpenak honako baldintzak bete beharko ditu:
 - a) Gutxienez egileen, aktoreen eta langile teknikoen % 75ek Espainiako izan behar du edo, bestela, EEEko egoiliarra ala nazionala izango da.

¹ SA.37516 (2013/N) – Espainia Estatuko laguntza, zinema eta ikus-entzunezkoen ekoizpenetarako zerga-kenkariaren Espainiako araubidea, http://ec.europa.eu/competition/elojade/isef/case_details.cfm?proc_code=3_SA_37516.

- b) Ekoizpenaren jatorrizko bertsioa, lehenetasunez, Espainiako Estatuko hizkuntza ofizial batean ekoitzia egongo da.
- c) Filmaketa, postprodukzioa eta laborategiko lanak EBn egingo dira.

Irizpide horiek zehatz-mehatz deskribatzen dira Espainian zinema eta ikus-entzunezkoen jardueretarako laguntzen araubideari buruzko Batzordearen aurreko Erabaki batean (N587/2009 gaian 2010eko urtarrilaren 27ko Batzordearen Erabakiaren 11. kontuan hartuzkoa²).

- (11) Aldaketak eraginkortasunez aplikatuko dira, Batasuneko Zuzenbidearekin bateragarriak badira. Erregimen honen babesean ez da laguntzarik emango Espainiako agintariek Erabaki honetan dagoen Batzordearen aldetik onarpena jasotzen ez duten bitartean.
- (12) Onartzen direnean, aldaketak 2014ko urtarrilaren 1etik 2020ko urtarrilaren 1era bitarteko zergaldiei aplikatuko zaie.
- (13) Azkeneko urteetan erregimenaren babesean urtean batez besteko gastua 800.000 eurokoa izan da. Oinarri horren gainean, erregimena kategorien arabera salbuespenen araudi orokorraren³ (KSAO) babesean aplikagarria litzateke eta ikus-entzunezkoen obretarako laguntzen araubideak hartzen ditu (54. artikulua), aurrekontua urteko 50 milioi eurotik behera kokatzen bada [4. artikulua, 1. atala, aa) hizkia]. Dena den, neurria ezin daiteke KSAOren arabera gauza, salbuespena ez baitzaie aplikatzen zerga-neurriei aplikatzen, atalase aplikagarria ez dutela gaindituko bermatzen ez badute [KSAOren 5. artikulua, 2. atala, d) hizkia]. Hau da kasua gai honetan. Urteko egiazko gastuak 50 milioi euroko atalasea gaindi dezake. Espainiako agintariek adierazitakoari jarraiki, aldatutako araubidearen babesean urteko gastua aurreko urteetan baino askoz handiagoa izatea espero dute.

2.2. Neurriaren aldaketak

- (14) Neurriaren aldaketak, lehenik eta behin, laguntza-intentsitate aplikagarriei eta diruz lagun daitezkeen gastuei buruzkoak dira. Espainiako agintariek aldaketaren prozesua erabili dute hainbat xedapen sartzeko eta 2013ko zinemari buruzko jakinarazpena⁴ eskatzen dute, hala nola ikus-entzunezko obra zailak definitu eta gardentasunari buruzko baldintzak zehaztea.
- (15) Aldatutako neurriak kenkari tasa bat zehazten du, film edo ikus-entzunezkoen seriean (fikzioa, animazioa edo dokumentala) enpresa ekoizleak jasanarazitako ekoizpen-, banaketa- eta sustapen-kostuen % 30. Banaketa- eta sustapen-kostuak ekoizpen-aurrekontuaren % 40ko mugara arte kontuan hartzen dira. Ekoizpena finantzatzeko jasotako diru-laguntzak kenkariaren oinarrian ez dira sartzen, bakarrik ekoizpen-enpresak jasanarazitako kostuek osatzen baitute.

² N 587/2009 - Espainia estatuko laguntza, Espainian zinema eta ikus-entzunezkoen jarduerarako laguntzen araubidea, http://ec.europa.eu/competition/ejojade/isef/case_details.cfm?proc_code=3_SA_29638.

³ Batzordearen 651/2014 (EB) Araudia, 2014ko ekainaren 17koa, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz barneko merkatuarekin bateragarriak diren laguntzen kategoria zehatzak aitortzen dituena, 2014.6.26ko DO L 187, 1 or.

⁴ Zinema obra eta ikus-entzunezkoen sektoreko bestelako ekoizpenetarako estatuko laguntzei buruzko Batzordearen jakinarazpena, 2013.11.15eko DO C 332, 1-11 orr.

- (16) Finantza-ekoizleentzat xedapen bereziak jada ez daude neurri aldatuaren barruan.
- (17) Araubidearen babesean laguntza metatuaren intentsitatea ekoizpen-aurrekontuaren % 50ekoa da. Mugaz haraindiko ekoizpenen kasuan, muga handiagoa da, % 60, alegia. Laguntzaren intentsitate-mugak ikus-entzunezkoen obra zailei ez zaizkie aplikatzen, ezta ELGEko GLBren (Garapenerako Laguntza Batzordea) zerrendan dauden herrialdeek parte hartzen duten ekoizpen bateratuei ere.
- (18) Bizkaiko Foru Aldundiaren arabera, hurrengoak ikus-entzunezkoen obra zailak dira:
- a) Film laburrak.
 - b) Zuzendariaren lehenengo edo bigarren filma.
 - c) Jatorrizko bertsoia eksklusiboki euskaraz eginda dagoen lana.
 - d) Aurrekontu txikiko lanak, ekoizpenaren kostuak 500.000 euro gainditzen ez badituzte.
 - e) Gaiarengatik edo ekoizpenari atxikitako beste elementu batzuek merkatuan sartzeko zailtasunak dituzten lanak. Katategoria honetan sartuak dauden lanetarako, onuradunak obraren merkataritza-zailtasunak egiaztatu beharko ditu eta zerga-administrazioari obra zailtzat jotzeko eskatu beharko dio.
- (19) Xedapen berezia sartu da eta horren arabera, eskatzaile guztiak neurriaren esparruan 2013ko zinemari buruzko jakinarazpenaren 52. puntuko 7. atalean aurrez ikusitako datuak hedatzeko adostasuna azaldu behar dute (gardentasunari buruzko eskakizuna). 2014ko maiatzaren 21ean Batzordeak jakinarazpen bat onartu zuen eta estatuko laguntzei buruz aztertu ziren arau desberdinetan⁵ gardentasunari buruzko baldintzak harmonizatzen zituen. Nolanahi ere, zinemari buruzko jakinarazpenaren 52. puntuko 7. atalean sartutako gardentasunaren baldintzak aldatzen ziren. Espainiako agintariak gardentasun-mekanismo aldatuak aplikatzeko konpromisoa hartu dute.

2.3. Bestelako elementuak

- (20) 2013ko zinemari buruzko jakinarazpenak Estatu kideei honakoa bultzatu eta laguntzeko gonbita luzatzen die: finantza-organoak izendatu ostean, ekoizleek diruz lagundutako filmaren kopia bat zinema-ondarearen erakunde arduraduneari gorde dezatela, babesteko eta eskubideen titularrekin adostu ondoren merkataritzarako ez den erabilera berezia emateko.

⁵ Batzordearen jakinarazpena, hurrengoei buruzko Batzordearen jakinarazpenak aldatzen dituen: banda zabaleko sareen hedadura azkarrarekiko estatuko laguntzei buruzko arauak aplikatzeko Europar Batasunaren gidalerroak, 2014-2020 epealdirako helburutzat eskualdea duten estatuko laguntzei buruzko gidalerroak, zinema obra eta ikus-entzunezkoen sektoreko bestelako ekoizpenetarako estatuko laguntza, arriskuko finantzazio-inbertsioak sustatzeko estatuko laguntzei buruzko gidalerroak eta aireportuetarako eta aireko konpainietarako estatuko laguntzei buruzko gidalerroak [C(2014) 3349/2], http://ec.europa.eu/competition/state_aid/modernisation/state_aid_transparency_en.pdf.

- (21) Neurriak ekoizpenaren kopia bat Espainiako Filmotekan edo autonomia erkidegoak onartzen duen zinemaren agiritegi ofizialean gorde behar dela aurrez ikusten du.

3. NEURRIA EBALUATZEA

3.1. Estatuko laguntzaren existentzia

- (22) EBFTren 107. artikuluko 1. atalarekin bat: «Tratatuek bestelakoa xedatzen dutenean izan ezik, barneko merkatuarekin bateraezinak izango dira, Estatu kideen tarteko merkataritza-trukeei eragiten dizkieten neurrian, Estatuak emandako laguntzak edo estatuko funtsen bitartez lortutakoak, edozein modutan, lehia faltsutzen edo faltsutzea mehatxatzen badute enpresa edo ekoizpen zehatzen alde».
- (23) Estatuko laguntzat jotzeko, neurriak honako baldintza metatuak izan behar ditu: a) estatuko funtsen bidez eman behar da; b) enpresei abantaila ekonomikoa eskaini behar die; c) abantailak selektiboa izan behar du; eta d) lehia faltsutu edo faltsutzea mehatxatu behar du eta Estatu kideen arteko merkataritza-trukeei eragin behar die.
- (24) Neurria estatuko baliabideen bitartez finantzatzen da, zerga-sarrerak galduz Estaturako kostua baita eta Estatuari egozten baitzaio.
- (25) Neurria ekoizpen-enpresen onurarako da zerga-betebeharrak murriztearen bidez eta, modu horretan, abantaila ekonomikoa eskaintzen die.
- (26) Araubideak izaera selektiboa du, bakarrik ikus-entzunezkoen ekoizpenean diharduten enpresei aplikatzen baitzaie.
- (27) Araubideak onuradunaren posizio lehiakorra hobe dezake, lehian ari diren beste enpresa batzuekin alderatuz eta, beraz, lehia faltsutu edo faltsutzea mehatxatzen du. Ikus-entzunezkoen obrak nazioartean merkaturatzen direnez, araubidearen onuradunei emandako abantaila ekonomikoak Estatu kideen arteko merkataritzari eragiten dio.
- (28) Beraz, Batzordearen ustez araubidea Estatuko laguntza da EBFTren 107. artikuluko 1. atalean xedatzen duenaren ildotik. Hala, laguntzaren bateragarritasuna ebaluatu behar da.

3.2. Dagoen laguntza edo berria

- (29) Hasierako araubidea 11/1984 Foru Arauak, abenduaren 27koak, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoak, onartu zuen, beraz, Espainia 1986ko urtarrilaren leian Europar Erkidego Ekonomikoan sartu baino lehenago. Batzordearen iritziz, estatuko laguntza zen heinean, hasierako araubidea Kontseiluaren 659/1999 (EB) Araudiak, 1999ko martxoaren 22koak, EB Tratatuen 93. artikuluko aplikazioaren xedapenak ezartzen dituenak, 1. artikuluko b) hizkian xedatutakoaren ildotik zegoen laguntza zen.
- (30) Batzordeak egiaztatutakoaren arabera, jakinarazitako aldaketarekin hasierako araubidearen irismena nabarmenki zabaldu da, ekoizleak jasanarazitako sustapen-eta banaketa-kostuak ere estaltzeko. Halako aldaketak hasierako araubidearekiko osagarriak dira eta horri diruz lagun daitekeen gastu-kategoria bat eransten zaio,

diru-laguntza jaso dezaketen beste gastu batzuekiko hasierako araubidearen berezko funtzionamenduari eragin gabe.

Hala eta guztiz ere, kenkariaren tasarik handienak orokorrean hartuta araubidearen funtzionamenduari nabarmenki eragiten dio. Dagoen laguntzan aldaketa garrantzitsuak gertatzen direnean eta, ondorioz, hasierako araubidearen funtsari eragiten diotenean, araubidea laguntza araubide berri⁶ bihurtzen da. Aurrekoa ikusirik, Batzordearen ustez aldatutako neurria laguntza-neurri berria da.

3.3. Laguntzaren bateragarritasuna

- (31) Zinema obra eta ikus-entzunezkoen sektoreko bestelako ekoizpenetarako estatuko laguntzari buruzko Batzordearen jakinarazpenak (2013ko zinemari buruzko jakinarazpena, ikusi 4. oharra) arau bereziak xedatzen ditu zinema obra eta ikus-entzunezkoen sektoreko beste ekoizpen batzuetarako estatuko laguntzaren bateragarritasuna ebaluatzeko, EBFTk 107. artikuluko 3. atalaren d) hizkian xedatutakoaren babesean. Laguntza justifika daiteke laguntzek araubideak ondorengoak betetzen baditu: a) legezketasun orokorraren printzipioa eta b) zinemari buruzko jakinarazpenean xedatzen diren bateragarritasunari buruzko irizpide bereziak (52. puntua).

3.3.1. Legezketasun orokorra

- (32) «Legezketasun orokorraren» printzipioarekin bat, aukerako baldintzek eta esleipen-irizpideek estatuko laguntzen eremu ezberdinetan EBFTren xedapenen kontra doazen klausulak ezingo dituzte izan. Ildo horri jarraiki, EBFTren printzipioak errespetatzen direla bermatu behar da. Nolanahi ere, horiek hurrengoengatik diskriminazioa debekatzen dute: nazionalitatea, salgaien zirkulazio librea, langileen zirkulazio librea, kokatzeko askatasuna, zerbitzuak aske eskaintzea eta kapitalak zirkulatzeko askatasuna (EBFTren 18., 34., 36., 45., 49., 54., 56. eta 63. artikulua).
- (33) Printzipio horiekin bat, laguntzen araubideek, adibidez laguntzak ez dituzte eskusiboki nazionalentzat gorde behar edo ezingo dute eskatu onuradunak enpresa nazionalak, merkataritza-zuzenbide nazionalarekin bat eratutakoak, izatea.
- (34) Era berean, nahiz eta zinemaren sektoreko laguntza araubideek zehaztu, zinemari buruzko jakinarazpenak (50. puntua) lurralde-gastuaren betebeharrei mugak jartzen dizkie.
- (35) Araubide aldatuak lurralde-gastuaren eskakizunik ez du. Beste hitz batzuetan esanda, ekoizpenaren % 100 Espainiako lurraldetik kanpo egin daiteke, laguntzan eragin gabe.
- (36) Araubide aldatuak legezketasun-printzipio orokorrarekin arazoak planteatzen dituzketen bestelako xedapenak ez ditu. Espainiako agintariak baiezkatutakoaren arabera, zergadun egoiliarrez gain, ez-egoiliarrentzako errentaren gaineko zergapean dauden ez-egoiliarrak neurriaren onuradun izan daitezke. Espainiako nazionalitateari buruzko ziurtagiria jasotzeko aplikatzen diren irizpideek (ikusi 10. kontuan hartuzkoa) filmeko langileen nazionalitateari edo egoitzari erreparatuz, mugak sartzean ez dituzte arazoak planteatzen.

⁶ Ikusi T-195/01 eta T-207/01 gai metatuak, Gibraltarreko Gobernu/Batzordea, Rec. 2002 II-2309 or., 109-111 atalak.

Halaber, Espainian ekoizten diren filmen ziurtagiria ez dute mugatzen.

3.3.2. Zinemari buruzko jakinarazpeneko 52. puntuarekin bat ebaluazio berezia

- (37) Zinemari buruzko jakinarazpenaren babesean, Estatu kide bakoitzak diruz lagundutako ekoizpenaren edukia irizpide nazionaleri jarraiki kulturaltzat jo daitekeela zainduko du. Horretarako, egiaztapen-prozesu eraginkorra jarraituko du, akats nabarmena saihesteko. Printzipio ordezkatzailearekin bat, Batzordearen funtzioa Estatu kideek egiaztapen-mekanismo eraginkorrek ba al dituzten ziurtatzera mugatzen da, bai kultur aukeraketa prozesua zehaztuz, bai laguntza proiektu hautatu guztiek bete dezaketen kultur profilararen arabera emanez. Jakinarazitako araubidearen babesean, ekoizpenek kultur izaera frogatu behar dute eta, xede horrez, erakunde publiko independentearen eskutik (ZIEAE) ziurtagiria lortzea ezinbestekoa izango da (ikusi 9. kontu hartuzkoa).
- (38) Laguntzaren intentsitatea (metatua), hasieran, ekoizpen-aurrekontuaren % 50era mugatuko da. Dena den, intentsitate-mailak altuagoak izan daitezke (laguntzaren intentsitatearen % 60ra arte) mugaz haraindiko ekoizpenen kasuan, Estatu kide batek baino gehiagok finantzatzen badituzte, ikus-entzunezkoen obra zailak badira edo ELGEko GLBren zerrendan dauden herrialdeek batera ekoizten badituzte. Euskal neurria muga horietara moldatzen da. Espainiako agintariak ikus-entzunezkoen obra zailaren definizioa eman dute (ikusi 18. atala) eta zinemari buruzko jakinarazpenarekin bat dator.
- (39) Zinemari buruzko jakinarazpenarekin bat, gidoiak egin, garatu, banatu edo sustatzeaz gain, ekoizpen-jarduera berezietarako emandako laguntzak ez dira ahalbidetzen. Araubide aldatua xedapen honekin bat dator.
- (40) Laguntza gardentasunez eman behar da. Neurri aldatuak ildo horretatik doan xedapen berezia du (ikusi 19. atala).
- (41) Laburbilduz, Batzordearen iritziz, beraz, laguntza EBFTren 107. artikuluko 3. ataleko d) hizkiarekin bateragarria da.

4. ONDORIOA

- (42) Hortaz, Batzordeak neurriari eragozpenik ez jartzea erabaki du, Europar Batasuneko Funtzionamendu Tratatuaren 107. artikuluko 3. ataleko d) hizkian xedatutakoaren arabera barneko merkatuarekin bateragarria delakoan.

Gutun honek informazio konfidentziala badu eta, ondorioz, hirugarrenei zabaldu behar ez bazaie, hartu eta hamabost lanegunen buruan Batzordeari jakinaraztea eskatzen dizut.

Aipatu epean Batzordeak eskaera arrazoitua jasotzen ez badu, hirugarrenei jakinaraztea eta gutunaren testu osoa egiazko hizkuntza-bertsioan hurrengo internet helbidean argitaratzea onartzen direla ulertuko da:

<http://ec.europa.eu/competition/elojade/isef/index.cfm>.

Eskaera posta elektronikoz bidali beharko da honako helbidera:

Europar Batzordea
Lehiaren Zuzendaritza Nagusia
Estatuko laguntzen erregistroa
B-1049 Brusela
Stateaidgreffe@ec.europa.eu

Hartu ezazu nire begirunearen lekukoa,

Batzordearen aldetik

Margrethe VESTAGER
Batzordeko kidea